

## Euskadiko gazteek urte osoan udako ordutegia izatea nahiago dute


Azken larunbatean (martxoak 30) ordubete aurreratu dugu erlojua udako ordutegira egokitzeko. Baina Europako Batzordeak 2021etik aurrera neguko eta udako ordutegien aldaketak kentzea proposatu du. Proposamen horrek gai honi buruzko eztabaidak sortu ditu Europar Batasuneko herrialde guztietan.

Horren harira, eta bere iritzia ezagutzeko, zer nahiago duen galdetu zaio Euskadiko biztanleriari: orain arte bezala, udaberrian eta udazkenean ordutegia aldatzen jarraitzea ala ordutegi aldaketa horiek kendu eta urte osoan ordutegi berdina mantentzea.

Euskadiko 18 eta 29 urte bitarteko gazteen artean ez dago gehiengo zabala jarrera baten edo bestearen alde, baina gehiago dira ordutegi aldaketak kendu eta urte osoan ordutegi berdina mantentzearen aldekoak (% 43,7), orain arte bezala udaberrian eta udazkenean ordutegia aldatzen jarraitzea nahiago dutenak baino (% 28,0). Beste % 22,6k berdin zaiela esan dute eta gainontzeko % 5,8k ez dute erantzunik eman.

Gazteen eta 30 urtetik gorakoen iritzia alderatzen baditugu ikus dezakegu 30 eta 64 urte bitarteko gehienak ordutegi aldaketak kentzearen aldekoak direla eta, gazteak direla orain arte bezala (ordutegia aldatzen) neurri handienean jarraitu nahi dutenak, iritzi honetakoek gehiengo osatzen ez badute ere.

**Ordutegia aldatzeari buruzko iritzia, adin-talde handien arabera (%)**



*Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen datuak (68. Euskal Soziometroa) oinarri hartuta*

Gazteen artean talde ezberdinek dituzten iritziak ikusiko ditugu orain. Gizonak eta 25 eta 29 urte bitartekoak dira ordutegi aldaketak kentzearen aldekoenak, baina talde hauetan ere ez dute gehiengo osatzen. Hori ikusita pentsa daiteke emakumeek eta 18 eta 24 urte bitartekoek nahiago dutela orain arte bezala jarraitzea baina ez da horrela, emakumeen eta gazteen artean berdina zaiela diotenen edo erantzunik ematen ez dutenen portzentaje altuagoak daude.


Ordutegia aldatzeari buruzko iritzia					
(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak	
		Emakumeak	Gizonak	18-24 urte	25-29 urte
Nahiago dute ordutegi aldaketa kentzea	43,7	40,1	46,8	40,1	48,7
Nahiago dute orain arte bezala jarraitzea	28,0	28,0	28,0	28,4	27,3
Berdin zaie	22,5	24,4	20,9	26,1	17,7
Ez dakite edo ez dute erantzun	5,8	7,5	4,3	5,4	6,3
Guztira	100	100	100	100	100

*Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen datuak (68. Euskal Soziometroa) oinarri hartuta*

Dena den, azkenean ordutegi aldaketak kentzen badira betiko eta urte osoan ordutegi berdina mantendu behar bada, zein ordutegi nahiago luketen, neguko ala udakoa, galdetu zaie Euskadiko biztanleei.

Kasu honetan gazteak dira udako ordutegiaren aldekoenak (% 61,0) eta adinak aurrera egin ahala gutxiago dira udako ordutegia aukeratuko luketenak, nahiz eta 65 urtetik gorakoek ere nahiago duten udako ordutegia izan urte osoan negukoa izan baino.

**Urte osoan neguko ordutegia ala udako ordutegia izateari buruzko lehentasuna, adin-talde handien arabera (%)**



*Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen datuak (68. Euskal Soziometroa) oinarri hartuta*

Kasu honetan ia ez dago desberdinatunik gizon eta emakumeen artean, ezta 25 urtetik beherakoen eta gorakoen artean ere, baina udako ordutegia nahiago luketenak gehixeago dira 25 eta 29 urte bitartekoek artean (% 63,1) 18 eta 24 urte bitartekoek artean baino (% 59,4).

Udako ordutegia ala neguko ordutegia nahiago izatea					
(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak	
		Emakumeak	Gizonak	18-24 urte	25-29 urte
Udako ordutegia nahiago dute	61,0	61,0	61,1	59,4	63,1
Neguko ordutegia nahiago dute	11,2	12,3	10,2	12,7	9,0
Berdin zaie	21,6	19,2	23,7	22,5	20,3
Ez dakite edo ez dute erantzun	6,2	7,5	5,1	5,4	7,6
Guztira	100	100	100	100	100

*Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen datuak (68. Euskal Soziometroa) oinarri hartuta*

Datu horiek Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak eman dizkio Gazteen Euskal Behatokiari. 2018ko udazkenean Prospekzio Soziologikoen Kabineteak gai honi, eta beste hainbati buruz (denak [68. Euskal Soziometroa](#) izeneko txostenean argitaratuta) galdetu zien Euskadiko 3149 biztanleri eta horien artean 18-29 urte bitarteko 635 gazteri.